




Genero-Indarkeria eta 2021 gainera, indarkeria bikarioa



Genero indarkeriaren aurkako Aste Internazionalan (azaroaren 22-26 bitartean), IKEI-ko Berdintasun Batzordefik ere, gure aletxo jarri nahi genuke. Hementxe uzten dizkizuegu erreflexiorako zenbait datu eta bideo interesgarri.

Genero-indarkeria

''Genero-indarkeriatzat hartzen da indarkeria fisiko edo psikologikoko ekintza oro (sexu-askatasunaren aurkako erasoak, mehatxuak, derrigortzeak edo askatasun-gabetze arbitrarioa barne), baldin eta emakume baten aurka egiten badu bere ezkontidea den edo izan den edo antzeko afektibitate-harreman batek lotuta dagoen edo egon den gizonak, nahiz eta bizikidetzarik ez izan''.

INEk argitaratutako azken datuen arabera:

- Genero-indarkeriaren biktima diren emakumeen kopurua % 8,4 jaitsi zen 2020an, 29.215 pertsonara iritsi arte. Biktima kopuru handiena duen adin-tartea 25-39 urte bitartekoa da. Guztira, 45 emakume hil ziren.
- Euskadin, zorionez 2020an, genero-indarkeriaren biktima diren emakumeen kopurua % 21,5 jaitsi zen 559 biktima guztira; hala ere, oraindik asko dira.

Nahiz eta datuak beherakorrak izan eta bide onetik goazela iragartzen duten arren, **aurten 2021 ean, Tenerifeko ahizpen kasuak gogor jo du, gure gizarteko arazo handienetako bati aurpegia jarri baitio, indarkeria bikarioa edo 'ordezkatzeko' indarkeriari, hain zuzen.**

Indarkeria bikarioa

''Indarkeria bikarioa edo 'ordezkatzeko' indarkeria, genero indarkeriaren beste mota bat da, eta bere helburu nagusia emakumeari ahalik eta kalte handiena eragitea da, hirugarren pertsonari eraso eginez. Biktimak, oro har, haren seme-alabak izaten dira. Beraz, indarkeriarik krudel eta gupidagabeena da.

Indarkeria honen helburu nagusia, emakumea betirako suntsitzea da, eta 2013. urtetik, hilketa hauek zenbatzen hasi zirenetik 40 haur baino gehiago hil dituzte beren guraso biologikoek edo amaren bikotekide edo bikotekide ohiek''.

Indarkeria bikarioaren aurka borrokatzeko ERRONKA: belaunaldi berriak prestatzeko hezkuntza eta gizarte osoari zuzendutako sentsibilizazio-ekintzak funtsezkoak dira.



Hona hemen, indarkeria bikarioaren inguruan eib-ek egindako bideo-erreportajoa. Merezi da.

